



GOMENDIOAK: J BIKOITZEKO KATETERRA DUEN PAZIENTEA

J bikoitzeko kateterra «tutu» txiki bat da, eta, horri esker, pixa giltzurrunetik maskurira igaro daiteke. Ureterreko buxadura dagoenean edo kirurgia ondorengo orbaintzea errazteko jartzen da.

Barne-kateter bat da, normal egin ahal izango duzu pixa.

Ondoeza sor dezake abdomenaren behealdean (adibidez, pixa egiteko gogo handia eta erremina) edo gerrialdean (pixa egitean). Denborarekin gutxitu ohi da.

Maiz egin pixa; pixa egiteko gogo duzunean, ez eutsi denbora gehiegi. Ez egin indarririk pixa egitean.

Normala da pixan odola egotea; normalean, likido ugari edanda joaten da.

Medikuak esango dizu zenbat denbora izan behar duzun kateterra jarria, pertsona batetik bestera ezberdina baita.

Egunean behin tenperatura hartu; ahal izanez gero, arratsaldez.

Joan osasun-zentrora eta hitz egin lehen mailako arretako erizainarekin, baldin eta:

- 38° C-tik gorako tenperatura baduzu.
- Odoljariora baduzu, koagulu eta guzti.
- Ezin baduzu pixa egin.

Edozein argibide nahi izanez gero, deitu iezaguzue telefono honetara: 945 00 75 47 (AUOKK-Urologiako kontsulta).